

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5014

EBAZPENA, 2024ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena. Honen bidez, euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2024. urteko deialdia egiten da, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko.

Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuak (2003ko urriaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 198. zenbakia) euskal etxeei eman beharreko dirulaguntzak arautzen ditu. Dirulaguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideen asistentzia-premiei eta egoera larriari erantzuteko dira. Aipatutako dekretuaren 7. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorritik, bidezkoa da 2024ko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egitea.

Deialdi hau Lehendakaritzaren 2024-2027 Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoan jasota dago. Plan hori Gizarte Koordinazio eta Komunikazioko idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu zen eta egoitza elektronikoan argitaratuta dago: <https://www.euskadi.eus/proiektua/lehendakaritzaren-2024ko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/web01-s2lehen/eu/>

Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, martxoaren 28ko 39/2023 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, Idazkaritza Nagusiei dagokie dirulaguntzen deialdia egitea eta ematea, beren jardun-arloei dagozkien gaitan. Ildo horretatik, eta gaia kontuan hartuta, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiaren titularrari dagokio.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Euskal etxeei 212.000 euroko dirulaguntzak emateko deialdia egitea. Dirulaguntza horiek 2024ko ekitaldiari dagozkio eta atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideen asistentzia-premiei eta egoera larriari erantzuteko dira. Eranskinean (Euskal etxeei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak. Dirulaguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideen asistentzia-premiei eta egoera larriari erantzuteko dira) jaso dira horretarako onartu diren oinarriak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; hala ere, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2024ko azaroaren 4a, astelehena

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a.

Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
ANDER CABALLERO BARTUREN.

ERANSKINA

Euskal etxeei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak. Dirulaguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideen asistentzia-premiei eta egoera larriei erantzuteko dira.

Lehenengoa.– Xedea.

Oinarri hauen helburua da euskal etxeei laguntza ekonomiko zuzenak ematea, euskal gizataldetako partaideen asistentzia-premiei eta egoera larriei erantzuteko, 2024. urtean zehar, beti ere, irailaren 30eko 222/2003 Dekretuko 2. artikuluan ezarrita dauden baldintzak betetzen badituzte.

Ebazpen hau, aipatutako Dekretuan ezarritakoaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren dirulaguntzen araudiak arautuko du.

Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren goragoko mailako dirulaguntzen araudian aurreikusitakoaren eta, bereziki, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitakoaren artean kontraesana dagoen kasu guztietan, goragoko mailako arauan aurreikusitakoa nagusitu beharko da.

Bigarrena.– Zenbatekoa.

Laguntza hauetarako 2024. urteari dagokion zenbatekoa 212.000 eurokoa da.

Hirugarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrez gain, laguntza horien onuradunek irailaren 30eko 222/2003 Dekretuan aurreikusitakoa bete beharko dute, baldin eta lege horretan aurreikusitakoarekin kontraesanean ez badaude.

Laugarrena.– Eskabideak baloratu eta aukeratzeko irizpideak.

1.– Dirulaguntzak emateko, eskabideetan egiaztatutako egoeraren larritasuna baloratuko da, honako baldintza hauen arabera:

a) Familiaren egoera ekonomikoa, herrialdearen batez besteko errenta kontuan izanik: 5 puntu gehienez.

b) Osasun arriskuaren larritasuna edo muturreko egoeraren larritasuna: 15 puntu gehienez.

c) Egiaztatutako premiari aurre egiteko eskatutako zenbatekoaren egokitasuna: 5 puntu gehienez.

2.– Puntuazioetan berdinketak izanez gero, hauxe egingo da:

– Lehenik, «osasun arriskuaren larritasuna edo muturreko egoeraren larritasuna» irizpidean puntuazio handiena lortu duen eskabideak izango du lehentasuna.

– Bigarrenik, berdinketak jarraituz gero, «egiaztatutako premiari aurre egiteko eskatutako zenbatekoaren egokitasuna» irizpidean puntuazio handiena lortu duen eskabideak izango du lehentasuna.

Bosgarrena.– Eskabideak aurkezteko tokia, era eta epea.

1.– Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eskatutako baldintzak bete eta laguntza hauek jasotzeko interesa duten pertsonak euskal etxeetara jo beharko dute, eskabideak balioesteko eta izapidetzeko. Euskal etxeetako

kideek beraien zentroetara jo beharko dute, eta euskal gizataldeetako kideak izan eta euskal etxeetakoak ez direnek beraien lurralde-mugapeko edozein euskal etxetara jo dezakete, edo lurraldean ez badago, bizi diren herrialdean dauden edozeinetara.

2.– Euskal etxeek interesa duten pertsonen eskabideak sinatuta aurkeztu beharko dituzte, atxikitako ereduan ezarrita dagoen modura (www.euskadi.eus/euskaldunak web orrian aurki daiteke) eta bertan eskatzen den dokumentazioarekin, honako helbide honetan:

Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusia

Lehendakaritza

Nafarroa kalea, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

Eskabideak, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein eratan aurkeztu daitezke.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Seigarrena.– Ebaluazio Batzordea.

Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusita dagoen ebaluazio batzordeko kideak honako hauek izango dira:

– Gorka Álvarez Aranburu jauna, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak eskuordetuta. Batzordeburua.

Bokalak:

– Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea, Ongizatea, Gazteria eta Erroka Demokratikoa Saila ordezkatzuz.

– Larritz Gezala Oyarbide andrea, Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria, Osasun Saila ordezkatzuz.

– Benan Oregi Iñurrieta jauna, Lehendakaritzako Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako teknikaria.

– José Manuel Meaurio Antón jauna, Lehendakaritzako Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako teknikaria. Batzordeko idazkaria izango da.

Zazpigarrena.– Prozedura kudeatzeko eta ebazteko organo eskudunak.

Irailaren 30eko 222/2003 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiari dagokio irailaren 30eko 222/2003 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen ondoriozko kudeaketa-lanak egitea, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren titularraren bitartez.

Egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen Ebaluazio Batzordeak egindako txostena ikusita, eta espedientea ikusita, organo kudeatzaileak ebazpen-proposamena egingo du, eta, horrekin batera, txosten bat aurkeztuko du, non jasoko baita bere esku dagoen informaziotik ondorioztatzen dela onuradun izateko proposatutako pertsonak betetzen dituztela laguntzak jasotzeko behar diren baldintza guztiak.

Martxoaren 28ko 39/2023 Dekretuak aldatutako Lehendakaritzaren egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 5.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiak ebatziko du deialdia.

Zortzigarrena.– Ebatzeko eta jakinarazteko epea.

Irailaren 30eko 222/2023 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura ebatzeko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdiaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarotzen bada aipatutako argitalpenik egin gabe, dirulaguntza-eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, administrazio-bidea amaituko duen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan, eta euskal etxeei jakinaraziko zaie, ebazpen hau indarrean jarri eta sei hilabete igaro baino lehen. Ebazpen horren aurka berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bederatzigarrena.– Itzultzeko arrazoiak eta itzultzeko prozedura.

222/2023 Dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitako ez-betetzeez gain, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotakoak itzulketa-kausak izango dira.

Bestalde, itzulketa-prozedura Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoaren arabera arautuko da.

ESKABIDE EREDUA

1.- Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak:		Sexua:
Identifikazio-dokumentua:		Zenbakia:
Helbidea:		
Hiria:		Posta kodea:
Herrialdea:		
Telefonoa:		Faxa:
Posta elektronikoa:		
<p>Behean sinatzen duenak eskabide honetan jarritako datuak benetakoak direla adierazten du.</p> <p>Eguna eta tokia: Eskatzailearen sinadura:</p>		
Familia-unitatea zenbat pertsonak osatzen duten:		
Familia-unitatea osatzen dutenen hileroko diru-sarrerak guztira (moneta nazionalean):		
2024 urte osorako eskatutako dirulaguntza guztira (moneta nazionalean):		

2.– Eskaera abalatzen duen euskal etxeko ordezkari legala edo ahaldunaren identifikazio datuak, eta euskal etxe edo federazioaren banku datuak.

Izen-abizenak:	
Zer da: (ordezkari legala edo ahalduna)	
Helbidea:	
Hiria:	Posta kodea:
Herrialdea:	
Telefonoa:	Faxa:
Posta elektronikoa:	
Ordezkatzen duen Euskal Etxe edo Federazioa:	
Izena:	
Helbidea:	
Iria:	Posta kodea:
Herrialdea:	
Telefonoa:	Faxa:
Posta elektronikoa:	
Eskaera egin duen erakundearen (Euskal Etxe edo Federazioa) banku datuak:	
Bankuaren izena:	
Kontuaren titularra (Etxea edo Federazioa, ez pertsona fisiko bat):	
Kontu zenbakia (kode zenbaki guztiak adierazi behar dira):	
Banku-bulegoaren helbide osoa:	
<p>Eskatzaileak ez du ez isun administratiborik ez zigor penalik jaso dirulaguntza publikoak eskuratzeko ahalmena kentzen dionik, eta ez dauka horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.</p> <p>Ordezkarri legalak edo ahaldunak eskaera honetan adierazi diren datuak benetakoak direla egiaztatzen du.</p> <p>Eguna eta tokia: Sinadura:</p>	

3. – Erantzukizunpeko adierazpena eta bateragarritasun-adierazpena.

Eskatzaileak eta euskal etxearen legezko ordezkariak edo ahaldunak honako hau adierazten dute:

– Administrazio publikoek edo erakunde pribatuek helburu bererako emandako eta gainfinantzaketa eragiten duen laguntzarik edo dirulaguntzarik ez jasotzea.

– Administrazio publikoek edo erakunde pribatuek helburu bererako emandako laguntza edo dirulaguntzaren bat jasotzen ari da. (Dirulaguntzaren ezaugarriak zehaztu behar dira, gainfinantzaketa saihesteko).

– Helburu bererako laguntza edo dirulaguntza eskatu dio administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati, eta oraindik ebatzi gabe dago (dirulaguntzaren ezaugarriak zehaztu behar dira, gainfinantzaketa saihesteko).

– Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 eta 4. artikuluetan araututako dirulaguntza baten onuradun izatea eragozten duten egoeretako batean ez egotea.

– Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexu-diskriminazioagatiko debekuak barne, bai eta LGBTIfobia egiteagatik, bultzatzeagatik edo sustatzeagatik gertatutakoak ere, otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82 artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzekoa.

– Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende ez egotea.

– Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu.

– Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkezten den dokumentazio guztia ere, eta dagokien erantzukizuna beren gain hartzen dute (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, deklaraturakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitzea gertaera horien berri izaten den unetik aurrera, hargatik eragotzi gabe egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Familia-unitatearen urteroko diru-sarreraren egiaztagiria, eta ezin bada aurkeztu, agintari eskudunak abalaturako zinpeko aitortpena.
- Familia-unitateak dituen ondasun higiezin txostena.
- Euskal gizataldearen partaide dela egiaztatzeko agiria.
- Eskabidea bideratzea dagokion euskal etxeak interesdunaren egoerari buruz egindako txostena.
- Dirulaguntza eskatzen den gastu kontzeptuen aurrekontua.
- Osasun laguntzetarako eskabideei osasun-ziurtagiriak gehitu beharko zaizkie osasun egoeraren berri emateko eta premia larriko egoera edota osasun asistentziak dakarren gastua justifikatzeko.
- Erantzukizunpeko adierazpena, behar bezala beteta.